

# GOI LURRETATIK ZEHARKA

## Andeetako bizipenen islada

Txilera zazpi hilabetez lanera joan eta gero, ohartu ginen ezin ginela etxera itzuli Latinoamerika ezagutu gabe. Esan genezake, bizitzako erabakirik onena hartu genuela. Hiru hilabetetako bidaia honetan, izan dugu zer ikusi, ikasi eta zer kontatu. Badira gure emozio aldakorren errudun izan diren milaka istorio, idatzita ere motz geldituko direnak seguru. Hau guztia ulertzeko, bertako protagonista izatea eta bizitakoa sentitzea nahitaezkoa den arren, lerro hauetan islatzea nahi izan dugu ikusi eta bizitakoa. Goi-lurretatik zeharka, Perutik hasi eta Txile hegoaldera iritsi arte topo egindako herritar zein faunarekin bizitakoa magikoa izan da. Andeetako lurralde garaietan harrera ona egin gintuzten familiek, etxean bezala sentiarazi gaituzte. Euskaldunak, aymarekin, quechuarrekin, diagitekin zein mapuchekin uste duguna baino antz gehiago dugula ohartu gara.

Santiago de Chile atzean utziz iritsi ginen Perura eta Liman bi hankak jarri orduko, segituan ohartu ginen hiri kaotiko hura ez zela guretzako egina. Berehala ikasi genuen bizitza galtzearen beldurra zein den, hura hori haien gidatzeko modu eroa. Ordubetez Liman egon eta gero, egin genuen salto Huaraz-era, 0-tik 3.000 metrotara takada batez. Mendilerro zuria ezagutu genuen orduan, izenak garbi dioen bezala, zuriz estalitako tontor handiz inguratutako paraje hura. Hala ere, eguzkiak gogor jotzen zuen eta zuhaitzen urritasuna oso nabaria da. Kostata baina kale barrenetatik zehar aurkitu genuen gure etxe kuttuna. Hain goxo jaso gintuen bertako emakumeak, egonaldia beste gau batez luzatzea erabakitzen genuela egunez egun.

Zikina bezain berezi aurkitu genuen Huaraz, izan ere, kaleko bizitza horrek egiten duelako bizi bera. Kaleetako iluntasunak eta merkatuetako kolore bizien kontrastea ikustekoa da gero. Fruta, barazki zein arropa salgaien artean hazten dira herritarren arteko harremanak eta badu bere xarma hauen artean hirian sortzen den zalapartak. Autoen klaxona, azokako saltzaileen uluak eta kale txakurren zaunka hotsek loratzen dute Huaraz. Turismo, nekazaritza eta abeltzaintza dira hiri honetako diru sarrera iturri indartsuenak. Hala ere, kale saltzaile asko zailtasun ugari dituztela ikusi genuen egunerokotasunari aurre egiteko behar adina diru poltsikoratzen ez dutelako, beraz, pobrezia nabaria da.

Andeetako mendikate zuria parez pare izanda txiki sentitzen ginen erraldoi hauen aurrean baina han ikusi genuen Vallunaraju, hankak mugimenduan jartzeko aukera paregabea. Ancash eskualdeko Quechua hizkuntzan mendi honek badu bere esanahia, behin mendi puntan geundela ulertu genuela - Ametsetako Mendia - . Pixkanaka-pixkanaka, hango arbasoen hizkuntza zaharra ezagutuz joan ginen. Ez geunden ziur 5.686 metrotara iritsiko ginenik, baina bagenekien saiatzen ez bagina gogo handiekin geldituko ginela. Hartu genituen pare bat egun lasai aklimatazio egokia izateko, hura zen gure beldurrik handiena, hala ere, maldan gora arnasestu batean gindoazen oraindik ere, putxa!. Nabari zuten gure zangoek ibilitako orduen pisua handia zela baina tontorra begien parean izanda ezin ginen atzera bota. Behin gailurrean, bista gora altxatuta paisai paregabea ikusi genuen, kondorraren hegaldi geldiarekin postaleko argazki bat balitz bezala plasmatur.

Begiz jota genuen beste inguru magiko bat Hatun Machay izan zen. 4.000 metroetara kokatzen den harrizko baso galanta, horregatik bere izena – Kobazulo Handia - Quechueraz. Kirol eskalada praktikatzen duen pertsona ororen paradisua; lasaitasuna eta harriaren arteko armonia. Komunitate horretako familiek kudeatzen dute bertako txabola-etxea eta denboraldiz denboraldi etxearen jabetza txandakatzen joaten dira. urteko lehen euriteak heltzear ziren eta jada ez zen inor gehiago bertan. Hor bizi izan ginen komunitate horren parte lehen aldiz, gu eta bertako familia soilik geundelako eremu horretan. Orduantxe ikusi genuen beraien bizimodua zer nolako desberdina den hirian aurkitzen diren biztanleekin eta zer esanik ez europarren bizimoduarekin alderatuta. Izan genuen baina une kritiko bat leku horretan, izan ere, batek daki non hartutako bakterio batekin gaixotu eta osasun zentrotik 200 kilometrotara aurkitzen ginen, kobertura gabe eta garraiorik pasatzen ez zen eremu huts eta baztertu batean. Eta pentsa une hartan izandako zortea, bertako familiak ganaduen kamioi baten gainean herrira jaitsi gintuela. Sekula ez dugu ahaztuko eskuzabaltasun hura.

Nahi ez, baina joan behar izan genuen ospitalera esperantza izpi txiki baten bila. Han eman ziguten bakterioari agur esateko errezeta; pilula pare bat, likidoa, arroza eta atsedena. Ostatuan pasa genituen hiru egun lasai indarrak berreskuratu eta bertatik alde egiteko. Atsekabeak jota geunden. Bagenekien hurrengo geltokian topatuko genuela lotarako aterpea, baina ez hau bezalakorik. "Etxean bezala inon" esaerak dioen bezala sentitu baikinen bertan, baina bidaiak egunen erritmoa jarraitu behar zuen eta aurrera egitea zen dena.

Titikaka aintziran agurtu genuen Bolivia. Zer sentsazio arraroa, itsaso urdin zabala parez-pare agertu zitzaigunean, altuera galdu beharrean altuago geunden amaigabea zirudien ia lau mila metrotara aurkitzen den laku horretan. Titikaka lakuari egiten diogu erreferentzia itsasoa diogunean, izan ere, lakuan zehar itsasontzian nabigatzen ari ginela itsaso amaigabe eta zabalean geundela zirudien. Pasaiaz gain, bada zer kontu herrialde edo kultura bat osatzen duten biztanleen bizimoduaz. Ehule onenak izateagatik dira ezagunak hemengo biztanleak (emakumeak), kolore biziko jantziekin nabarmentzen baitira. Kulturalki aberasgarria iruditu zitzaigun bertan ikusi eta entzuntakoak, nola eraiki duten bertako familiek beraien bizimodu eta komunitatea. Isla de Uros komunitatearentzat, *Titora* izenez ezaguna den landarak pisu handia du bertako biztanleentzat, izan ere, landara honekin sortzen dutelako beren "etxe flotanteak", non, batzuk ere elikatzeke erabiltzen duten. Beraien egunerokotasunean garrantzi handia duen elementua bihurtu da.

Hiru ordu luzez itsasontzian eman ondoren iritsi ginen - Eguzkiaren Irlara - , hiru komunitatek osatzen duten Titikaka aintzirako irlarik handiena da. Hala ere, lur eremu hau ez da handia eta horrek ere komunitateen artean eragina izan zuen. "*Herri txiki infernu handi*" esaerak dioen bezala, irla txikietan fenomeno hori gertatzen dela ikusi genuen, izan ere, duela ez asko Challapampa (irlaren iparraldea) eta Challa (irlaren erdialdea) herrien artean gatazka piztu zen turismoarekin loturiko hainbat ezaugarriren eraginez eta horrek hainbat ondorio ekarri zituen. Gaur egun, komunitate bakoitzak bere bizimodua egiten du, irlan lasaitasuna eta bakea nabarmentzen delarik. Egun gutxitan irla ezagututa La Paz-era egin genuen alde eta hara non bakea ikusi beharrean kaos hutsa islatzen zuen hiriarekin egin genuela topo.

Bageneukan baina beste erronka bat buruan bueltaka, La Paz-eko altxorretako bat; Huayna Potosi - Montaña Joven – Aymara hizkuntzan. Zalantza geneukan 6.088 metroetara kokatzen den tontorrean bi zangoak jarriko genituenik, baina zangoek gogoari jarraitzen die eta saiatu

beharra geneukan. Hiru egunetako espedizioa omen da baina, gure aklimatazioari esker gidak bi egunetan egitea proposatu zigun. Erritmo biziarekina abiatu ginen kanpamentu nagusira, eguerdiko ekaitza harrapatu baino lehen. Kanpamentuan atsedean hartzea besterik ez zitzaigun gelditzen gabez tontorrari ekiteko. Hori sentsazio arraroa, logura ez dago baño nekea nabaria da. Gorputzeko ordutegia hautsi genuen, arratsaldean lo eta gauean esna. 00:00ak jo baino minutu batzuk lehenago, begitako bekarrak garbitu, materiala txukundu eta zero izartsuaren azpian jantzi genituen kranpoiak gorantz abiatzeko asmoarekin. Eguneko lehen argi izpiek eta paisaiak eskaintzen zigun edertasunak arindu gintuen tontorrera heltzeko azken malda. Handia zen baina arnasa oraindik lar estutu gabe ekin genion azken maldari. Seietarako argitu zuen egunak, noizbehinkako laino arin batek gailurra ferekatzen bazuen ere, eguzkiak gogor berotzen zuen tontorren jantzi zurietan.

Begiak une batez itxi, arnasa lasai hartu eta bat-batean zuriz jantzitako tontor haiek tonalitatez aldatu ziren. Gorrixka, marroi zein gris koloreko mendien artean aurkitzen ginen Argentinako iparraldeko herrixka txikiak erakusteko zer ote zaukaten galdetuz. Muga pasatzen ari ginela bidearen zati bat itxita zegoela ikusi genuen, autobusetik jaitsi eta oinezean pasa beharra zegoen. Ekainean onartu zen erreformari uko egiteko elkartu ziren bertan protestariak *“arriba las wiphalas, abajo reforma”* lemapean. Utzi genituen atzean manifestariak eta sekulako beroarekin sartu ginen iparraldeko herrixka txiki haietan. Eguzkiak gogor jotzen zuen eta astintzen gintuen airea oso beroa zen. Argentinan egon arren Boliviako ohiturak sumatzen genituen oraindik ere, jantzi koloretsuak, artisautzaz betetako kaleak, bi hizkuntzen eta kulturen arteko nahasketa... Mendien koloreen tonalitate anitz hauetan egun batzuk igaro eta gero, hezetasun freskura usaina botatzen genuen faltan, berde koloreko baso amaigabeak eta lainoz estalitako tontor zuriak. Argentina hegoaldera abiatu ginen: Patagoniara.

Bidegurutzean behatz keinua eginda, San Martin de los Andes, Bariloche edo El Bolsón bezalako herri liluragarriak ezagutu genituen, baina bagenuen begiz jota beste txoko magiko bat: El Chalten. Bi oinak bidera eramanez, pausoz-pauso elurrez estalitako baso ederrean murgildu ginen eta ohartu orduko, Fitz Roy parean geneukan. Aurreko eguneko elurteak pausoa baldartu arren, gure gogoek bultzatu ziguten mendi miresgarri honen oinetara iristen. Elkarren arteko begirada irribarretsu horrek bazuen bere esanahia, izan ere, koadro baten parte ginela sentitu genuen une batez. Inguru guztia zurituta baina zero urdina nabarmena zen, sekulako eguraldia, sekulako parajea eta sekulako konpainia. Zer gehiago eskatu genezaken?

Txileko Patagonian agur egin genion bidaiari, izan ere, gure azken kilometroak egiteko zain geneukan Torres del Paine Parke Nazionala. Posible diren klima guztiak ezagutu genituen. Hegoaldeko lur horietan eguraldiak agintzen duela argi ikusi genuen. “W” ibilbidean barrena sartu ginen egun batzuek, bizkarreko zama geroz eta handiagoa zen eta gure bateriari gutxi gelditzen zitzaion so egiteko. Baina tontorreko lakuan islatzen diren orratzen silueta ikusteko gogoek malda arintzen ziguten. Harrigarria goian izan genuen azken bista panoramikoa.

Santiago de Chile-ra berriz itzultzen genbiltzala, motxila berrikustean, ohartu ginen bertan gordeta geneukan oroitzapen bildumak asko balio zuela. Zenbat bizipen, sentsazio eta sentimendu gogoan izango ditugunak, baina oraingoaz gero arte batez agurtuko direnak.

Aratz Oñederra / Nerea Elorza